

EHUndu Aurreratua

programa

(ehundu-A programa)

- A. **Sarrera**
- B. **ehundu-A programaren helburuak**
- C. **Konpromiso adierazle orokorrak**
- D. **Konpromiso adierazle espezifikoak elkartutako ikastegientzat**
- E. **Deialdia, finantzaketa eta erabakia**
- F. **Deialdiaren eranskinak:**
 - eranskina: **ehundu-A programarako eskari orria.**
 - 2. eranskina: **Konpromiso adierazleen fitxa.**
 - 3. eranskina: **Konpromiso dokumentuak, ikastegiko.**
 - 4. eranskina: **ehundu-A programaren gastuaren gestioa.**
 - 5. eranskina: **420/2015 Errege Dekretua, maiatzaren 29koa, unibertsitateak eta unibertsitate ikastegiak sortu, aitortu, baimendu eta akreditatzeko dena.**
 - 6. eranskina: **Europako Unibertsitate Eremuan (ESG) kalitatea bermatzeko irizpideak eta jarraibideak – 2015.**

A. SARRERA

UPV/EHUK graduko titulazioen curriculumak garatzeko oinarriak onartu zituen, 2010eko apirilaren 26ko Gobernu Kontseiluan. Proiektu hori aurrera eramateko esparrua IKD ereduak zehazten du; hots, ikasleak ardatz dituen irakaskuntza-ikaskuntza eredu kooperatibo eta dinamikoa. **Ehundu** programa tituluak modu estrategikoan bultzatzeko tresna nagusia izan da, eta ekintza berritzaileak egin ditu, hezkuntza eredu hori garatzeari begira.

IKD ereduak zehazteko, UPV/EHUren ikastegiak eta fakultateak aldaketa eta eraldaketaren motortzat hartu behar izan dira, nola prozesuen hala produktuen mailan.

Alde batetik, ikastegiak dira tituluetakako barne bizitzaren arduradun nagusiak. Tituluak diseinatzeko, garatzeko eta hobetzeko eginkizuna dute, unibertsitate osorako orientazio komuna edukita, baina bakoitzaren berezitasunetik abiatuta, eta denboran zehar modu dinamikoan egokituta. Azken sei urteetan, ekimen asko jarri dira martxan, besteak beste, irakasle taldeak aktibatuzko, irakaskuntza metodologiak hobetzeko, etengabeko ebaluazioa txertatzeko edo ideia eta proiektu berritzaileak probatzeko, non ikasleak ikaskuntzaren erdigune diren. Emaitza horiek jasota geratu dira lehenengoz unibertsitateko esperientziari buruzko *EHUn Bizi* galdetegiaren bidez, non azken mailako ikasleek beren jardura akademikoa eta gaitasunak nola hautematen dituzten adierazi duten.

Bestalde, ikastegiak kontuak eman behar dituzte, kanpo agentzien aurrean. Hala, alderdi hauei erantzun behar izaten diete: a) hartutako konpromisoen lorpena, tituluak eta kudeaketa sistemaren hedapenean, aldaketan eta hobekuntzan, b) Unibasq agentziak emandako gomendioen gauzapena (titulazioen akreditazioa berritzea eta jarraipen txostenak), eta c) Ikastegiaren barne kalitaterako sistemen ezarpena ziurtatzeko txostenak, sistema horiek izango baitira epe labur eta ertainera unibertsitate ikastegiak akreditatzeko oinarrizko elementuak.

Ikastegiak tituluak garatzeko eragile nagusitzat hartzeko erabaki estrategikoa, zeina UPV/EHUK hartu baitzuen 2010ean, indartu egin da, araudi berri hauen harira: 420/2015 Errege Dekretua, maiatzaren 29koa, unibertsitate eta unibertsitate ikastegiak sortu, aitortu, baimendu eta akreditatzeari buruzkoa (ikus 5. eranskina), eta Europako Unibertsitate Eremuan (ESG) kalitatea ziurtatzeko irizpideak eta ildoak - 2015 (ikus 6. eranskina). Hori guztia kontuan hartuta, ikastegiak tituluak akreditatzeari begira hartzen dute garrantzi gehien, antolakuntza eta kudeaketa unitate nagusiak diren neurrian. Hau aldaketa handia da, eta unibertsitateak laguntza bitartekoak eta baliabideak jarri beharko ditu hori lortze aldera.

Araudi berri horiek eragin zuzena dute maila praktikokoan. Maila operatiboan, berriz, UPV/EHUren ikastegiak bi eskakizun handiri erantzun beharko diete, beren erakunde akreditazioa lortzeko. Alde batetik, tituluak akreditazioa eskuratzea, neurri handi batean, ikastegi guztiek lortu dutena, eta, bestetik, KBBSren ezarpenaren ziurtagiria eskuratzea, AUDIT programaren bidez; horrek esan nahi du Europako Unibertsitate Eremuan (ESG-2015) kalitatea ziurtatzeko irizpideak eta jarraibideak ikastegietan ezarri behar direla.

Kontuan hartu beharreko garrantzi handiko beste kontu bat honako hau da: UPV/EHUren araudiaren arabera beharrezkoa da ikastegiari atxikitako arduraldi osoko plantillako irakasle eta ikertzaileen % 70 doktoreak izatea, eta, edozein kasutan, ikastegiak gutxienez arduraldi osoko 50 irakasle eta ikertzaile iraunkor izatea atxikita (Ikastegiaren Oinarrizko Arautegiaren 3. artikulua, 2016ko urtarrilaren 4ko EHAA). Eskakizun horiek bereziki eragiten diete lan arloari lotutako tradizioa duten ikastegiei, orain beren ikerketa jardura indartu beharrean egongo baitira.

Eskakizun berri horiek guztiek testuinguruaren arabera ikastegiei laguntzen jarraitzeko beharra indartzen dute; hala, egoera partikular bakoitzetik abiatuta, erronka horiei aurre egiteko estaldura eta laguntza eman beharko zaie.

Ikastegien berrantolaketa norabide horretan egindako lehen urratsa izan da, zeina barruan indartzeko estrategia orokortzat ulertu behar baita eta lagungarria izango baita erakundearen kanpo akreditaziorako. Ikastegien bat egitea 2014an hasi zen, eta, UPV/EHUko Gobernu Kontseiluaren 2014ko azaroaren 27ko Akordioaren arabera, hainbat helburu planteatzen zituen, hala nola ikastegien lehiakortasuna, ikusgarritasuna eta gizarte lidergoa areagotzea, graduako eta graduondoko tituluen eskaintzen arteko erlazioa hobetzea, ikerketa bultzatzea, gastuaren kudeaketan eta eraginkortasunean efizientzia areagotzea, eta sailen antolakuntza sinplifikatzea.

Estrategia global horren bigarren urratsa *EHUndu-Aurreratua (ehundu-A* hemendik aurrera) programaren edizio berri hau da, eta honen bidez erronka berri horiei guztiei erantzuteko tresna operatiboak ematen dira.

B. ehundu-A PROGRAMAREN HELBURUAK

Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturgintzaren arloko Errektoreordetza ikastegiak laguntzearen beharraz jabetzen da, proiektu akademiko sendoen erantzuleak diren unitate gisa indartu daitezen, IKD hezkuntza ereduak gara dezaten, eta kanpo agentzien aurrean hartutako konpromisoak lor ditzaten, ikastegiak eta tituluak hedatzeari, akreditatzeari, aldatzeari eta hobetzeari dagokienez. Hori dela eta, **ehundu-A** programaren edizio honetan helburu hauek proposatzen dira:

1. Ikasleen ikaskuntza prozesuak aberastea, gizartearekin eta garapen iraunkorarekin duten lotura bultzatuta.
2. Ikasleen eta gizarte eragileen parte hartzea laguntzea, tituluen garapenean.
3. Barne kohesio eta lerrokatze dinamikak laguntzea, inplikaturako kolektiboak (irakasle-ikertzaileak, AZPko langileak eta ikasleak) erakunde proiektu partekatu baten alde konprometitzeko eta ikastegien identitate berria eratzen laguntzeko, bereziki ikastegi berrien kasuan.
4. Finantzaketa osagarria ematea, konpromiso jakin batzuen inguruko akordioa eta bi urtean helburu batzuk betetzea oinarri hartuta.
5. Baldintzak sortzea, epe ertainera ikastegi guztiek kanpo akreditazio instituzionala lor dezaten.

Helburu orokor horiek guztiak lortzeko, bereziki garrantzitsua da adierazle konpromiso orokorrak (C atala) eta UPV/EHUko ikastegi berrietarako adierazle konpromiso espezifikoak (D atala) zehaztea.

C. KONPROMISO ADIERAZLE OROKORRAK

Azaldutakoa aintzat hartuta, ikastegiaren eta unibertsitatearen artean 2017/2018 biurtekorako ezarriko den konpromiso dokumentua definituko duten adierazleen zerrenda emango dugu jarraian. Hemen zerrendatutako adierazleek deialdi honetan parte hartzeko interesa duten unibertsitate ikastegi guztiekin konpromiso dokumentua negoziatzeko oinarria zehazten dute.

KONPROMISO ADIERAZLE OROKORRAK
IKD adierazleak ikastegian (ikastegi bakoitzaren gestio sistemaren bidez gestionatu beharrekoa, UNIKUDE bitartez)
<i>Curriculum garapena</i>
<ul style="list-style-type: none"> • IKD Irakasle Talde egituratu bateko kidea izatea egiaztatzen duten irakasleen kopurua¹. • Titulu bikoitzen eta/edo baterako tituluen kopurua. • Hizkuntza ez-ofizialetan emandako irakasgai moduluen kopurua. • Euskarazko irakats materiala bultzatzeko deialdian parte hartzen duten irakasleen kopurua.
<i>Erakunde garapena:</i>
<ul style="list-style-type: none"> • Euskalitek egiaztatutako BIKAIN ziurtagirirako ebaluatzaile kopurua. • KEIZek ikastegiaren KBBsren barne ebaluazioa egiteko eskatzea². • Kanpo bisita egiteko eskatzea, KBBsren ezarpenaren ziurtagiria eskuratzeko.
<i>Garapen profesionala:</i>
<ul style="list-style-type: none"> • Ikastegiak eta/edo sailek jarduera akademikoa (irakaskuntza, ikerketa, lidergoa eta kudeaketa aurreratua) errazteko bultzatutako jardueretan ikastegiko irakasleek izandako parte hartze ratioa. • Ikastegiari atxikitako arduraldi osoa duten irakasle eta ikertzaile iraunkorren %a.³ • Ikastegiari atxikitako arduraldi osoko plantillako irakasle eta ikertzaileen doktoreen %a. • Docentiaz ebaluatutako irakasle-ikertzaileen ehunekoa.
<i>Lurralde eta gizarte garapena:</i>
<ul style="list-style-type: none"> • Kanpo profesionalen bisita kopurua eta/edo ikasleek, curriculumaren esparruan, beren ikaskuntzari lotuta kanpo erakundeetara egindako bisita kopurua (<i>titulu bakoitzeko</i>). • Curriculumez kanpoko praktikak eta/edo GRALak eta MALak kanpo erakundeetan egin dituzten ikasleen kopurua. • Ikastegiak antolatutako/babestutako dibulgazio jardueren kopurua (ekitaldiak, foroak, erakusketak...). • Titulu bakoitzean, enplegatzaileekin egindako eztabaida taldeen kopurua.
<i>Hezkuntza aktiboa:</i>
<ul style="list-style-type: none"> • Kalitatean, berrikuntzan, iraunkortasunean, eta bestelakoetan parte hartu dutela edo prestatuta daudela egiaztatzen duten ikasleen kopurua.

¹ Laster, deialdi espezifiko bat egingo da IKD Irakasle Talde Egituratuaren aitortzarako.

² Ikastegiak honako dokumentu hauek eguneratuta izan beharko ditu ebaluazioa eskatu baino lehenago: 2015-16 ikasturtearen ikastegiko urteko kudeaketa txostena (AUDIT berrikuspen matrizea); 2015-16 ikasturtearen prozedura eta prozesu guztien berrikuspena; eta, jarduera akademikoari eta kudeaketa jarduerari lotutako erregistroen % 100 eguneratzea, sistema bere benetako kudeaketara egokituz.

³ "Ikastegiari atxikitako arduraldi osoa duten irakasle eta ikertzaile iraunkorren ehunekoa" eta "Ikastegiari atxikitako arduraldi osoa duten irakasle eta ikertzaile doktoreen ehunekoa" adierazleak ikastegiaren kudeaketa sisteman derrigorrezkoak (klabeak) dira nahiz eta EHUNDU-A konpromezuaren finantzaketan ez duten eraginik izango.

- | |
|---|
| <ul style="list-style-type: none"> • Titulu bakoitzean, ikasleekin egindako eztabaida taldeen kopurua. |
| <ul style="list-style-type: none"> • Mugikortasunen bat egin duten egresatuen ratioa. |

D. KONPROMISO ADIERAZLE ESPEZIFIKOAK UPV/EHUko IKASTEGI BERRIETARAKO

UPV/EHUK kanpoko baldintza berriei aurre egin behar die, bere ikastegietan askotariko egoerak ematen direla kontuan hartuta. Ikastegi berriek, datozen urteetan, elkartu diren ikastegiekin hainbat erronka lortu beharko dituzte, beren kudeaketa sistemen diseinua ziurtatzeari, urteko kudeaketa txostenak egiteari eta ikerketa jarduera indartzeari lotuta. Beraz, ikastegi baten konpromiso orokorrari abiapuntuko egoera zehatzari lotutako konpromiso espezifikokoak gehitu behar zaizkio.

KONPROMISO ADIERAZLE ESPEZIFIKOAK ikastegi mailan
--

<i>Ikastegi berriaren KBBS definitzea eta idaztea⁴:</i>
--

- | |
|--|
| <ul style="list-style-type: none"> • Prozesuen mapa berria definitzea. |
| <ul style="list-style-type: none"> • Prozedura eta prozesuen erantzukizun berriak definitzea, ikastegiaren arautegi berriaren idatzitakoa oinarri hartuta. |
| <ul style="list-style-type: none"> • Prozedura berriak idatzi, eta ikastegiaren konpromisoko eta tituluen jarraipeneko adierazle guztiak horietan txertatzea. |

<i>KBBSren diseinuaren aldeko ziurtagiria lortzea:</i>
--

- | |
|---|
| <ul style="list-style-type: none"> • Unibasqek KBBSren diseinuaren ziurtapena egin dezan eskatzea. |
|---|

<i>Ikastegi berriaren lehen plan estrategikoa idaztea (2017-2020):</i>
--

- | |
|---|
| <ul style="list-style-type: none"> • Plan estrategikoa Ikastegiko Batzarrera eramatea, onar dezan. |
|---|

<i>Ikerketa jarduera indartzea⁵:</i>

- | |
|--|
| <ul style="list-style-type: none"> • Artikuluen kopurua, indexatutako zientzia aldizkarietan. |
| <ul style="list-style-type: none"> • Artikuluen ehunekoa, Q1en indexatutako zientzia aldizkarietan. |
| <ul style="list-style-type: none"> • Liburuen kopurua. |
| <ul style="list-style-type: none"> • Liburu kapituluaren kopurua. |
| <ul style="list-style-type: none"> • Konferentzia edo hitzaldi kopurua, kongresuetan |
| <ul style="list-style-type: none"> • Patente edo baliagarritasun ereduaren kopurua. |
| <ul style="list-style-type: none"> • Erakusketa eta artelanen kopurua. |
| <ul style="list-style-type: none"> • Zuzendutako doktorego tesien kopurua. |
| <ul style="list-style-type: none"> • Euskaraz defendatutako doktorego tesien kopurua. |
| <ul style="list-style-type: none"> • Zuzendutako nazioarteko doktorego tesien ehunekoa. |
| <ul style="list-style-type: none"> • Finantzaketa bolumena, ikerketa proiektu eta kontratuetan. |

⁴ Ikastegi hauek beren kudeaketa eskuliburua egin beharko dute, eta, KEIZEK aztertu ondoren, UNIBASQera bidaliko da, ikastegi berriaren KBBSren diseinuaren ziurtagiria lortzeko.

⁵ Adierazle horien balioak Ikerketaren arloko errektoreordeak emango ditu, eta UNIKUDEn sartuko dira.

E. DEIALDIA, FINANTZAKETA ETA ERABAKIA

DEIALDIA

2017ko deialdi hau irekia izango da UPV/EHUko ikastegi guztientzat, eta eskaera egiteko ikastegiko zuzendariak edo dekanok mezu elektronikoko bat bidali beharko du kalberri@ehu.eus helbidera. Mezuari eskaera dokumentua (1. **eranskina**) eta eranskin horretan eskatutako dokumentazioa erantsiko zaizkio⁶. **UPV/EHUren Gobernu kontseiluak deialdi hau onartu eta hurrengo 10 lanegunetan bidali beharko da eskari orria.**

Deialdi honek 2018ko abendura arte iraungo du, eta sinatutako konpromiso dokumentuaren adierazleetan lortutako emaitzen arabera ebaluatuko da. Adierazle horiek 2017. eta 2018. urteetako urteko kudeaketa txostenetan agertuko dira. Txostenok Ikastegiko Batzarrak onartu beharko ditu, eta erreferentzia dokumentuak izango dira, deialdiaren emaitzak aztertzeko; izan ere, Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturgintzaren arloko Errektoreordetzako kideek dokumentu horiek aztertu, eta deialdi honetako **behin betiko 3. eranskinean** aurkeztu eta sinatutako helburuekin alderatuko dituzte.

FINANTZAKETA

Programa honetatik ikastegiek jasoko duten finantzaketa Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturgintzaren arloko errektoreordearen erabakian zehaztuko da, ikastegietara kanpo bisita egin eta dagokion konpromiso dokumentua sinatu ondoren, horrela banatuta: Ikastegi guztien artean modu zuzenean banatutako programa honetako aurrekontuaren %50a eta 1. Taularen arabeko %50a.

⁶ Eskaera orriarekin batera (1. eranskina), **3. eranskina zirriborro moduan** beteta bidaliko da, Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturgintzaren arloko errektoreordeak ikastegira egin beharreko bisitan eztabaida dadin.

1. taula. UPV/EHUko ikastegi bakoitzari dagokion gehieneko finantzaketaren balio proportzionala.

Ikastegiaren izena	%
Bilboko Ingeniaritza Eskola	15,08%
Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola	4,99%
Gasteizko Ingeniaritzako Unibertsitate Eskola	2,47%
Arkitektura Goi Eskola Teknikoa	3,51%
Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskola	3,35%
Arte Ederren Fakultatea	6,22%
Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea	5,51%
Kimika Zientzien Fakultatea	1,70%
Zientzia eta Teknologia Fakultatea	9,02%
Zuzenbide Fakultatea	2,59%
Ekonomia eta Enpresa Fakultatea	9,45%
Hezkuntza eta Kirol Fakultatea	2,86%
Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea	3,90%
Farmazia Fakultatea	4,78%
Informatika Fakultatea	2,22%
Letren Fakultatea	5,06%
Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea	12,82%
Psikologia Fakultatea	2,85%
Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea	1,65%
Guztira	100,00%

Ehuneko hori 2017ko aurrekontua oinarri hartuta kalkulatu da, unibertsitateko ikastegien gastu arruntean ikastegiak duen proportzioa aintzat hartuta. Ikastegiren bat deialdi honetara aurkeztuko ez balitz, finantzaketa orokorra mantendu, eta hari legokiokeen zatia lehengo taulan aurkeztutako ikastegien artean banatuko litzateke.

Deialdi honetarako aurrekontua UPV/EHU aurrekontu orokorrak onartu ondoren esleituko da.

Behin betiko finantzaketa lorpenen arabera zehaztu, eta formula honen bidez kalkulatu da:

$$\sum \frac{(ValorObtenido - LímiteInferior)}{(LímiteSuperior - LímiteInferior)} \times PuntosIndicador$$

non adierazle bakoitzaren muga balioak ikastegi bakoitzak definitu, eta eskarian agertuko baitira.

Soberakinik sortuz gero, errektoreordetzak banatu ahal izango du berak sustatutako programarekin eta helburuekin konpromiso handiena duten ikastegien artean.

Ikastegi berriek aparteko finantzaketa eskuratu ahal izango dute, eta horren banaketa

honela egingo da: ikastegi berri guztien artean modu zuzenean banatutako programa honetako aurrekontuaren %50a eta 2. Taularen %50a.

2. taula. UPV/EHUko ikastegi bakoitzari dagokion gehieneko finantzaketaren balio proportzionala.

Ikastegi berriak	%
Bilboko Ingeniaritza Eskola	29,72%
Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola	9,84%
Ekonomia eta Enpresa Fakultatea	18,62%
Hezkuntza eta Kirol Fakultatea	5,64%
Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea	7,68%
Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea	25,26%
Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea	3,26%
Guztira	100%

ERABAKIA

Deialdi honen gaineko erabakia emango da Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturgintzaren arloko errektoreordeak eta haren taldeak ikastegi bakoitza bisitatu, entzun eta alderdi hauek aztertu ondoren:

- behin konpromiso adierazleen kopuruaren egiaztapena egin denean, hau da, ikastegi ohikoen kasuan, gutxienez 14 adierazle, eta ikastegi berrien kasuan, berriz, 12 adierazle,
- eta, 11 adierazle espezifiko ikastegi berrien kasuan.
- 2018. urterako planteatutako adierazleen konpromiso helburuen lorpen maila.
- 3. eranskinean eskaintako konpromiso dokumentuaren sinadura.

Deialdi honetatik sortutako gastuaren gestio osoa deialdiaren beraren 4. eranskinean ezarritako jarraibideekin bat etorrita egingo da.



Leioa, 2017ko apirilaren 6an.

Idoia Hernandez
Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturgintzaren arloko errektoreordea

F. DEIALDIAREN ERANSKINAK

1. eranskina: **ehundu-A** programarako eskari orria.
2. eranskina: Konpromiso adierazleen fitxa.
3. eranskina: Konpromiso adierazleak, ikastegika.
4. eranskina: **ehundu-A** programako gastuaren kudeaketa
5. eranskina: 420/2015 Errege Dekretua, maiatzaren 29koa, unibertsitateak eta unibertsitate ikastegiak sortu, aitortu, baimendu eta akreditatzeko dena.
6. eranskina: Europako Unibertsitate Eremuan (ESG) kalitatea bermatzeko irizpideak eta jarraibideak - 2015

1. Eranskina: Eskaera
Anexo1: Solicitud

2017 EHUNDU-A PROGRAMA: ESKAERA ORRIA
HOJA DE SOLICITUD PARA EL PROGRAMA EHUNDU -A

IKASTEGIAREN DATUAK / DATOS DEL CENTRO	
Izena / Nombre	
Campusa / Campus	
Responsable EHUNDU arduraduna	

Eskaerarekin aurkezten diren ebidentziak / Evidencias que presenta con esta solicitud			
		Bai/Si	Ez/No
<i>Konpromiso adierazleen ZIRRIBORROA, 2018an lortu beharreko goi eta beheko mugak definituz, ahal bada (3. eranskina)</i>	<i>BORRADOR de los indicadores de compromiso definiendo (si es posible) los límites inferior y superiores a alcanzar en el 2018 (Anexo 3)</i>		

Ikastegiko Dekanoaren/Zuzendariaren sinadura
Firma del Decano/a / Director/a del centro

2. eranskina: KONPROMISO ADIERAZLEEN FITXA.

Adierazle bakoitzaren fitxa zuzenean eskainiko da UNIKUDE aplikazioan, haren irakurketa eta emaitzaren analisia errazteko. Ikastegiak definitu edo eskatu beharreko dokumentazioari lotutako adierazleek ez dute fitxarik.

ADIERAZLEA	Adierazlearen helburua	Formula	Oharrak
1 IKD Irakasle Talde egituratu bateko kidea izatea egiaztatzen duten irakasleen kopurua.	Ikasleen ikaskuntza kalitatea areagotzea.		Datuen iturria: ikastegia. IKD Irakasle Taldeen aitortza, deialdi espezifiko baten bidez egingo da.
2 Titulu bikoitzen eta/edo baterako tituluaren kopurua.	Titulazioen erakargarritasuna eta balore soziala areagotzea	Titulu bikoitzeko hitzarmena duten gradu edo master tituluaren kopurua + baterako tituluaren izaera proposamenean jasota duten tituluaren kopurua.	Datuen iturria: ikastegia. Kontuan hartuko dira aztertutako ikasturtean horrela emandako tituluak, hau da, UPV-EHUren barruko titulazio bikoitzak edo Estatuko beste Unibertsitateekikoak edo/eta nazioarte mailakoak
3 Hizkuntza ez-ofizialetan emandako irakasgai moduluen kopurua.	Ikasleen ikaskuntza kalitatea areagotzea. Nazioartekotzea bultzatzea.	Hizkuntza ez-ofizialetan emandako eta lauhileko edo ikasturteko moduluaren elkartutako irakasgai kopurua.	Datuen iturria: ikastegia. Ikasketa Planekoak eta Eleaniztasun Planekoak batuko dira.
4 Euskarazko irakats materiala bultzatzeko deialdian parte hartzen duten irakasleen kopurua.	Ikasleen ikaskuntza kalitatea areagotzea.	Konprometitutako material bat amaitzen duten irakasleen kopurua.	Datuen iturria: ikastegia.
5 Euskalitek egiaztatutako BIKAIN ziurtagirirako ebaluatzaile kopurua.	Euskararen erabileraren normalizazioa.		Ebaluatzaile hauek, ahal delarik, Ikastegiko Euskara Batzordeko kide izango dira. BIKAIN eredu berria UNIKUDEn sartuko da, 2017ko bigarren seihilabetekotik aurrera auto-ebaluazioak egiten hasi ahal izateko.
8 Ikastegiak eta/edo sailek jarduera akademikoa (irakaskuntza, ikerketa, lidergoa eta kudeaketa aurreratua) errazteko bultzatutako jardueretan ikastegiko irakasleek izandako parte hartze ratioa.	Jarduera akademikoa hobetzea.	Irakasle parte hartzaileen kopuruaren/ikastegiek eta/edo sailek jarduera akademikoa errazteko sustatutako jardueren kopuruaren arteko koefizientea.	Datuen iturria: ikastegia. Jarduera hauen ebidentziak kudeaketa txostenean jasoko dira.
Arduraldi osoa duten lotura iraunkorreko irakasle-ikertzaileen ehunekoa. ⁷	Irakasleen kualifikazioa areagotzea.	Arduraldi osoa duten IRI iraunkorren kop. / Ikastegiko IRI kop.*100	Datuen iturria: UNIKUDE.
Arduraldi osoa duten irakasle-ikertzaile doktore atxikiaren ehunekoa.	Irakasleen kualifikazioa areagotzea	Arduraldi osoa duten eta gutxienez doktore titulua duten IRI kop. / Ikastegiko IRI kop.*100	Datuen iturria: UNIKUDE.
9 DOCENTIAZ programarekin ebaluatutako irakasle-ikertzaileen ehunekoa.	Emandako irakaskuntzaren kalitatea hobetzea, IKD eredu bultzatuta.	"Aztertzen ari den eta aurreko ikasturteetan DOCENTIAZ programan ebaluatutako IRI kop." * 100/"I, I eta III motako IRI kopurua, baldin eta kategoria hauetakoren batekoak badira: unibertsitateko katedraduna, unibertsitate eskolako	Datuen iturria: UNIKUDE. I mota: Plantilla finkatzea (modu iraunkorrean zerbitzuak eman eta aurrekontu hornidura duen plaza betetzen duten pertsonak). II mota: Aldi baterakoak (irakasle emeritu, bisitari edo lektore gisa

⁷ "Ikastegiari atxikitako arduraldi osoa duten irakasle eta ikertzaile iraunkorren ehunekoa" eta "Ikastegiari atxikitako arduraldi osoa duten irakasle eta ikertzaile doktoreen ehunekoa" adierazleak ikastegiaren kudeaketa sisteman derrigorrezkoak (klabeak) dira nahiz eta EHUNDU-A konpromezuaren finantzaketan ez duten eraginik izango.

		katedraduna, unibertsitateko irakasle titularra, unibertsitate eskolako irakasle titularra, Nautika Eskola Ofizialaren irakasle numerarioa, IVEZ irakaslea, unibertsitate lankidea, unibertsitate eskolako lankidea, irakasle osoa, agregatua, unibertsitateko bitarteko irakasle kontratuduna, unibertsitate eskolako bitarteko irakasle katedraduna, irakasle atxikia, irakasle laguntzailea". Izendatzailea kalkulatzeko, kontuan hartzen da aztertutako ikasturterako adierazitako harrera ikastegian dauden irakasleen kopurua.	<i>zerbitzuak ematen dituztenak, edo zerbitzu eginkizunetan dauden edo ikasketa plan batetik eratorritako beharrak asetzen dituztenak.</i> III mota: Ordezkapenak (postuaren irakasle titularren irakaslan egiten ari diren pertsonak, titular horiek aldi baterako edo modu iragankorren lan hori ezin dutenean egin hainbat arazoirengatik).
10 Kanpo profesionalen bisita kopurua eta/edo ikasleek, curriculumaren esparruan, beren ikaskuntzari lotuta kanpo erakundeetara egindako bisita kopurua (titulu bakoitzeko).	Ikasleen enplegarritasuna eta gizarte konpromisoa erraztea.		Datuen iturria: ikastegia. Adierazle hau tituluko eta ikasturteko ematen da.
11 Curriculumez kanpoko praktikak eta/edo GRALak eta MALak kanpo erakundeetan egin dituzten ikasleen kopurua.	Ikasleen enplegarritasuna eta gizarte konpromisoa erraztea.		Datuen iturria: ikastegia. Deialdi espezifiko bat egingo da, GRALak jasagarritasunerako hezkuntzaren ikuspegitik egiteko.
12 Ikastegiak antolatutako/babestutako dibulgazio jardueren kopurua(ekitaldiak, foroak, erakusketak....)	Pertsonen inplikazioa areagotzea ikastegiaren gizarte hedakuntzan.	Burututako dibulgazio jarduera kopurua.	Datuen iturria: ikastegia. Jarduera hauen ebidentziak kudeaketa txostenean jasoko dira.
13 Titulu bakoitzean, enplegatzaileekin egindako eztabaida taldeen kopurua.	Gizarte eragileen parte hartzea bultzatzea, tituluaren garapenean.		Adierazle hau ikastegikoa da, eta tituluka ematen da. Kalitate eta Ebaluazio Instituzionalerako Zerbitzuak eztabaida taldeak egiteko aholkularitza eta laguntza emango du.
14 Kalitatean, berrikuntzan, jasagarritasunean eta bestelakoetan parte hartzen dutela / prestatuta daudela egiaztatzen duten ikasleen kopurua.	Ikasleen enplegarritasuna eta gizarte konpromisoa erraztea.		Datuen iturria: ikastegia.
15 Titulu bakoitzean, ikasleekin egindako eztabaida taldeen kopurua.	Ikasleen parte hartzearen bultzatzea, tituluaren garapenean.	Eztabaida taldeen bidez maila akademiko (1.,2.,3. eta 4.) bakoitzeko ikasleei egindako elkarrizketak.	Adierazle hau ikastegikoa da, eta tituluka ematen da. Kalitate eta Ebaluazio Instituzionalerako Zerbitzuak eztabaida taldeak egiteko aholkularitza eta laguntza materiala emango du.
16 Nazioarteko mugikortasunen bat egin duten egresatuen ratioa.	Ikasleen ikaskuntza kalitatea areagotzea. Nazioartekotzea bultzatzea.	Erasmus+ (ikasketak), Latinoamerika eta Beste Norako Batzuk nazioarteko mugikortasun programetan parte hartu duten egresatuen kopurua/egresatu kopuru osoa.	Datuen iturria: ikastegia. Nazioarteko Harremanetarako Bulegoak emango du.

3. eranskina: KONPROMISO DOKUMENTUAK, IKASTEGIKO.

A.- UPV/EHUko ikastegi guztien konpromiso dokumentua osatzen duten adierazle orokorrak.

Elkartu ez diren ikastegiak nahitaez hautatu beharko dituzte 6. eta 7. adierazleak, (kudeaketa sistema ezarri izanaren ziurtagiria dutenek izan ezik) eta, horrezgain, beste 12 adierazle hautatu beharko dituzte.

Ikastegi berriek, 6. eta 7. adierazleak ezin dituztenez aukeratu, beste 12 adierazle hautatu beharko dituzte.

	KONPROMISO ADIERAZLEA	2016ko balioa	2018rako helburua
	IKD adierazleak ikastegian (ikastegi bakoitzaren gestio sistemaren bidez gestionatu beharrekoa, UNIRUDE bitartez)		
	<i>Curriculum garapena</i>		
1	• IKD Irakasle Talde egituratu bateko kidea izatea egiaztatzen duten irakasleen kopurua ⁸ .		
2	• Titulu bikoitzen eta/edo baterako tituluen kopurua.		
3	• Hizkuntza ez-ofizialetan emandako irakasgai moduluen kopurua.		
4	• Euskarazko irakats materiala bultzatzeko deialdian parte hartzen duten irakasleen kopurua.		
	<i>Erakunde garapena:</i>		
5	• Euskalitek egiaztatutako BIKAIN ziurtagirirako ebaluatzaile kopurua..		
6	• KEI Zek ikastegiaren KBBSren barne ebaluazioa egiteko eskatzea ⁹ .		
7	• Kanpo bisita egiteko eskatzea, KBBSren ezarpenaren ziurtagiria eskuratzeko.		
	<i>Garapen profesionala:</i>		
8	• Ikastegiak eta/edo sailek jarduera akademikoa (irakaskuntza, ikerketa, lidergoa eta kudeaketa aurreratua) errazteko bultzatutako jardueretan ikastegiko irakasleek izandako parte hartze ratioa.		
9	• Docentiaz ebaluatutako irakasle-ikertzaileen ehunekoa.		
	<i>Lurralde eta gizarte garapena:</i>		
10	• Kanpo profesionalen bisita kopurua eta/edo ikasleek, curriculumaren esparruan, beren ikaskuntzari lotuta kanpo erakundeetara egindako bisita kopurua (titulu bakoitzeko).		
11	• Curriculumez kanpo praktikak eta/edo GRALak eta MALak kanpo erakundeetan egin dituzten ikasleen kopurua.		
12	• Ikastegiak antolatutako/babestutako dibulgazio jardueren kopurua (ekitaldiak, foroak, erakusketak...).		
13	• Titulu bakoitzean, enplegatzaileekin egindako eztabaida taldeen kopurua.		
	<i>Hezkuntza aktiboa:</i>		
